



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARTE
EDERREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE BELLAS
ARTES



ARTE EDERREN FAKULTATEA

Artea / Kultura Ondarearen Kontserbazio eta
Zaharberritzea / Sorkuntza eta Diseinua

www.ehu.es

Arte Ederren Fakultatea



Artea_6. or. / Ondarearen Kontserbazio eta
Zaharberritzea_8. or. / Sorkuntza eta Diseinua_10. or.

Garatu zure sormena

Praktika artistikoak, kulturaren eta ondarearen gestioa, diseinua eta horretarako prozesuak... sormenarekin, irudiarekin eta estetikarekin lotura duten alderdi guztiak gure gizartea gogoeta eta kritika eginez eraikitzeko eta aldatzeko bide dira. Horregatik dira garrantzitsuak unibertsitateko ikasketa artistikoak, ikasketa horien bidez prestatzen baitira etorkizuneko artistak, diseinatzaileak, gestoreak, sortzaileak, zaharbertzaileak eta ekintzaileak.

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatea bilakaera etengabean murgilduta dago, eta estatuan izen handia du, bai irakaskuntzan, bai ikerketan; horrez gainera, kalitatezko ekipamendu berria dauka.



FAKULTATEA ZENBAKITAN

3

gradu
titulu

+100

proiektu eta deialdi
ikasleentzat urtean

5

master

+70

hitzarmen ikasle
trukerako 30
herrialde baino
gehiagorekin

2

berezko
titulu

1

doktorego
programa



[BBA Bitakora](#)

 [@arteehu](#)

 [@arteehu](#)

 [@arteehu](#)

 [UPV/EHU](#)

 [UPV/EHU](#)

 [UPV/EHU](#)

Arte Ederren Fakultatea
Sarriena auzoa z/g
48940 Leioa · Bizkaia

946 012 000
fac.bellasartes@ehu.es | arteederrak.fak@ehu.es
www.ehu.es/eu/web/arte-ederren-fakultatea

GURE AZPIEGITURAK

Irakaskuntzarako guneak:

- Ikus-entzunezko tresneriaz hornitutako gelak

Ikasleek beren kabuz erabiltzeko guneak:

- Talde lanerako gela
- Ordenagailu gela
- Ikasteko eta lanerako guneak
- Biblioteka eta bideoteka
- 2 plato

Laborategiak, tailerrak eta gune espezifikoak:

- Egur, harri, burdina, zeramika, pintura eta abarrez hornitutako tailerrak
- Serigrafiarako eta estanpaziorako tailerrak
- Kultura ondareen azterketa zientifikorako laborategia
- Artelanak aztertzeko laborategia eta X izpien kabina
- Irudi mugikorrekoko platoa
- Platoak eta argazki laborategiak
- Soinu gela, grabazio kabinaduna
- Edizio kabinak
- Animazio gela
- Irudien tratamendurako informatika gelak

Beste gune batzuk:

- Sozializatzeko gunea
- Gradu Aretoa
- Ikustaldi aretoa
- Materiala erosteko denda
- Armairuak
- Kopiagintza zerbitzua

UNIBERTSITATEKO PRAKTIKAK

- Gradu-ikasleek kanpoko borondatezko praktikak egin ditzakete behin kredituen %50 gaindituta
- Praktikak, Fakultateko irakasleek gainbegiratuak, hitzarmena daukaten entitateetan egiten dira: Artium Museoa, BilbaoArte, Bilbao Ekintza, Tabakalera, CC. Montehermoso, Azkuna Zentroa, Kutxabank, EiTB, Bilboko Arte Ederren Museoa, eta era askotako enpresak, ekoizleak, artistak...

Presta zaitez artean, kulturean, diseinuan... lan egiteko.




MUGIKORTASUN PROGRAMAK


SICUE
Espainiako unibertsitateak

ERASMUS +
Europako unibertsitateak

Latinoamerika eta beste norako batzuk

Egonaldi artistikoen nazioarteko programa



 [Hemen](#) aurkituko duzu ikastegi honetako mugikortasun-programen informazio guztia.

IRAKASKUNTZA ELEANIZTUNA

Gradu guztiak:

Nahitaezko irakasgai guztiak eta hautazko gehienak euskaraz eta gaztelaniaz egin daitezke.

Hautazko irakasgaiak:

Hautazko irakasgaietako batzuk ingelesez egin daitezke.

Gradu Amaierako Lana:

Euskaraz edo gaztelaniaz.

KULTUR EKINTZA

Arte Ederren arloko formakuntza hainbat eratako jarduerekin osatzen da: erakusketak, tailerrak, mintegiak, hitzaldiak eta deialdiak. Astero bidaltzen den boletin baten bidez ematen da jarduera horien berri, baita sare sozial ugariaren bidez ere. Jarduera horietan modu aktiboan parte hartuz gero, mundu profesionalarekin harremanetan jartzeko aukera emango dizuten esperientziak zeureganatuko dituzu.

Arte Ederren Fakultateak harreman sare garrantzitsua du hainbat museo

eta zentzorekin, kultura eragile publiko eta pribatuekin, baita hainbat kolektiborekin ere, eta horiekin elkarlanean zenbait **proiektu eta deialdi** sortu ditu, ikasleen lana aitortzeko balio dutenak (Arteshop, Artea Deustuko zubian, Carlton Hotela lehiaketa, Bilbao Art District, Mendibile Jauregia...).

Egonaldi artistikoen nazioarteko programa batean lan egiten dugu, eta horri esker gure ikasleek proiektuak gara ditzakete Pekinen, Rhenon (Nevada), Antartikan (Argentina), Filipinetan...

NON ESKAINTZEN DIRA GURE GRADUAK?



LEIOA

Bizi Bizkaiko Campusa!



+22.000 ikasle



9 ikastegi

1 Ikastetxe Nagusi



1 unibertsitate egoitza

Ostatu zerbitzua:
ostatua aurkitzen
lagunduko dizugu



6 biblioteka



Kultura, musika eta
arte jarduerak



1 kiroldegi
Itunpeko kirol
zentroak



Ikasi hizkuntzak
Hizkuntza
egiaztagiriak



Enplegu Gunea

Jakintza adarra: **Arteak eta Giza Zientziak**

Arteko Gradua artearen oinarri tradizionalak eta egungo panoramako proposamen berri eta abangoardistenak sakon ezagutzeko behar dituzun tresna teoriko eta praktikoak eskaintzen dizkizu. Hizkuntza, prozedura eta teknologia berriak ikasi eta probatuko dituzu eta sormenaren, ekoizpenaren, zabalkundearen eta ikerketaren arlo desberdinetako prestakuntza jasoko duzu.

Titulazioak eskainiko dizun ikasketa programa zabala eta malgua da, eta barne hartzen ditu norberaren proiektuak eta lankidetzakoak, proiektzio profesional garrantzitsua izateaz gain, pertsonen bizitzan ere proiektzioa daukatenak. Gainera, hiru aipamen izango dituzu espezializatzeko: Arte Medioak eta Teknologia; Eskultura; Testuinguruak eta Lekuak; eta Pintura eta Grafikoak.

Era berean, borondatezko kanpoko praktikak egin ahal izango dituzu inguruko museoetan, arte galerietan eta kultura erakundeetan, eta parte hartu ahal izango duzu hainbat mintegi, hitzaldi, erakusketa eta lehiaketatan.

Guzti horrek erakutsiko dizu jarduera artistiko eta sortzailea norbera eta taldea ezagutzeko bide bat ere badela. Izan ere, ezinezkoa baita gizarte osotasunean ulertzea bere erreferente estetikoetan eta horien esanahian sakondu gabe.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Ezagutzak eta trebetasunak bateratuz arte proiektuak, komisariatza proiektuak eta/edo bitartekaritzakoak garatzeko; arte lana sortzeko, produzitzeko eta zabaltzeko tresnak erabiltzeko; artearen historia eta teoria garrantzitsuenak ezagutzeko; gertaera artistikoen eta haien gizarte testuinguruen arteko loturak ezagutzeko; eta artearen eta kulturaren estrategietan trebatzeko.

Irteera profesionalak:

- Sorkuntza artistikoa: pintura, eskultura, irudigintza, grabatua, argazkilaritza, ikus-entzunezkoak eta teknologia berriak
- Ikus-entzunezko errealizazioa eta produkzioa
- Arte kritika eta erakusketen komisariatza
- Kulturguneen eta erakusketa guneen zuzendaritza, kudeaketa eta horien gaineko aholkularitza enpresetan eta erakundeetan
- Irakaskuntza eta ikerketa

Artearen eta kulturaren adierazpen desberdinak (pintura, eskultura, ikus-entzunezko teknologiak, etab.) interesatzen bazaizkizu, pertsona sortzailea eta jakinguraz betetakoa bazara eta estetikak ardura badizu, Arteko Graduan dago zure lekua.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

- Arte eta Teknologia I
- Irudigintza I
- Eskultura I
- XX. Mendeko Artearen Historiarako Sarrera
- Materialen Laborategia
- Irudi Laborategia
- Pintura I

BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

- Arte eta Teknologia II: Teknikak eta Prozesuak
- Irudigintza II
- Eskultura II
- Artearen Historia Orokorra
- Laborategia
- Pintura II
- Teknologiak eta Prozesuak

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 42 kreditu + hautazko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Arte eta Teknologia III
- Irudigintza III
- Eskultura III
- Laborategia A
- Pintura III

2. lauhilekoa

- Historia: Azken Joerak
- Laborategia B

Hautazkoak

- Argazkilaritza Arte Garaikidearen Diskurtsoan (1A)
- Arte Interaktiboa eta Interfazeak (1A)
- Eskultura Espazioaren Kontzeptuak (2A)
- Pintura Metodologia eta Proiektua (3A)
- Pintura Metodologia eta Prozesuak (3A)
- Euskararen Arauak eta Erabilerak
- Grafika Teknologikoa

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 18 kreditu + hautazko 24 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Hezkuntza eta Bitartekaritza Artean

Hautazkoak

- Denboran Oinarritutako Arte Medioak (1A)
- Erregistroa eta Praktika Artistiko Performatiboak eta Testuinguruak (1A)
- Instalazioak eta Soinu Espazioa (1A) (2A)
- Arte Objektua (2A)
- Eskultura, Arkitektura eta Hiriko Paisaia (2A)
- Ingurugiroa, Ekintza eta Partaidetza (2A)
- Arlo Grafikoa Eremu Hedatuan (3A)
- Pintura, Teknologiak eta Diziplinartekotasuna (3A)
- Testuinguruari Lotutako Pintura Praktikak (3A)
- Geometria Aplikatua
- Komunikazioa Euskaraz: Arteak

2. lauhilekoa

- Arte Eremua: Testuak eta Testuinguruak
- Sorkuntza Artistikoaren eta Profesionalizazioaren Prozesuak eta Metodologiak

GRADU AMAIERAKO LANA

AIPAMENAK

- Arte Medioak eta Teknologia (1A)
- Eskultura: Testuinguruak eta Lekuak (2A)
- Pintura eta Grafikoak (3A)

KULTURA ONDAREEN KONTSERBAZIO ETA ZAHARBERRITZEARI BURUZKO GRADUA



Jakintza adarra: **Arteak eta Giza Zientziak**

Gure kultura ondarea paregabea eta aparta da; hortaz, balio kalkulazina dauka. Museo, artxibo edo bildumetako hainbat pintura, eskultura, ehun eta arkeologia piezek kontserbatu eta zaharberritu beharra daukate gizarte guztiak izan dezan ezagutza transmititzeko elementu horiez gozatzen jarraitzeko aukera. Horrela, bada, ezinbestekoa da unibertsitatean arlo horretako profesionalak prestatzea.

Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Graduak kultura ondareen aldatetarik diagnostikatzeko eta aztertzeke funtsezkoak diren tresna teoriko eta praktikokoak eskaintzen dizkizu, baita beharrezko kontserbazio eta zaharberritze tratamenduak aukeratu eta aplikatzekoak ere. Kontserbazio eta zaharberritze lanei aplikatutako teknologia berriak erabiltzen eta prebentziozko kontserbazio planak diseinatzeko ikasiko duzu, eta ondare historiko eta artistikoa kudeatzeko, aztertzeke, eta ondare horren zabalkundea egiteko prestakuntza jasoko duzu.

Horrez gain, borondatezko kanpoko praktikak egin ahal izango dituzu inguruko museoetan, arte galerietan eta kultura erakundeetan, eta parte hartu ahal izango duzu hainbat mintegi, hitzaldi, erakusketa eta lehiaketatan.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Kontserbazio eta zaharberritze politikak ulertu eta aplikatzeko; kultura ondarearen konposizio materiala eta ondarea lantzeko erabilitako teknikak identifikatzeko; ondarearen narriaduraren arrazoiak ezagutu eta identifikatzeko, beharrezkoa den tratamendua zehazte aldera; eta artearen teoria eta historia kritikoki ulertzeko, gertaera artistikoak eta haien gizarte testuingurua eta ikonografia kontuan izanda.

Irteera profesionalak:

- Bildumen prebentziozko kontserbazioa museo, artxibo, liburutegi eta fundazioetan eta erakunde publiko zein pribatuetan
- Kultura ondareen kontserbazioa eta zaharberritzea: pintura, eskultura, lan grafikoa, arte garaikidea, etab.
- Erakusketen muntaiari, lanen garraioari eta prebentziozko kontserbazioari buruzko aholkularitza teknikoak
- Kontserbazio eta zaharberritze tratamenduei buruzko aholkularitza teknikoak
- Parte hartzea ikerketa programa eta proiektuetan, I+G proiektuetan, etab.
- Kultur ondareen bildumen kudeaketa
- Irakaskuntza eta ikerketa



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Artea eta kultura interesatzen bazaizkizu, kultura ondareen kontserbazioa garrantzitsua dela uste baduzu, pertsona sortzailea eta jakinguraz betetakoa bazara eta talde lana gustoko baduzu, Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Graduan dago zure lekua.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

- Artea eta Teknologia I
 - Eskultura I
 - Irudi Laborategia
 - Irudigintza I
 - Materialen Laborategia
 - Pintura I
 - XX. Mendeko Artearen Historiarako Sarrera
-

BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

- Artea eta Teknologia II: Teknikak eta Prozesuak
 - Artearen Historia Orokorra
 - Eskultura II
 - Irudigintza II
 - Laborategia
 - Pintura II
 - Teknologiak eta Prozesuak
-

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 42 kreditu + hautazko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Euskarri Desberdinen Gaineko Pinturen Kontserbazioaren Oinarriak I
- Euskarri Desberdinen Gaineko Pinturen Kontserbazioaren Oinarriak II
- Kontserbazio Materialen Ezagutza eta Aplikaziorako Laborategia
- Kontserbazioaren Teoria eta Esku-hartzeko Irizpideak

Hautazkoak

- Pintura Materialak eta Prozesuak
- Prebentziozko Kontserbazioa. Kultura Ondareen Aldaketa eta Hondatze Faktoreak

2. lauhilekoa

- Euskarri Desberdinen Gaineko Eskultura Lanen Kontserbazioaren Oinarriak
- Kontserbazioaren eta Zaharberritzearen Oinarri Zientifikoak
- Proposamen Plastiko Berrien Kontserbazioaren Oinarriak

Hautazkoak

- Euskararen Arauak eta Erabilerak
 - Inpresio bidezko Lanak Egiteko eta Kontserbatzeko Teknikak eta Prozedurak
 - Kultura Ondareen Kontserbazioaren eta Zaharberritzearen Historia
 - Kultura Ondareen Kontserbazioari Aplikatutako Berrintegrazio Teknikak eta Kontzeptuak
-

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 24 kreditu + hautazko 30 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Euskarri Desberdinen Gaineko Eskultura Lanen Zaharberritzea
- Euskarri Desberdinen Gaineko Pinturen Zaharberritzea
- Kultura Ondareen Azterketa Teknikoa eta Dokumentazioa. Ikerketa eta Metodo Zientifikoa

Hautazkoak

- Eskultura Teknikak: Materialak eta Prozedurak
- Horma Pintura. Euskarriak eta Teknikak
- Komunikazioa Euskaraz: Arteak
- Paper Gaineko Lanak Egiteko eta Kontserbatzeko Teknikak eta Prozedurak

2. lauhilekoa

- Plastika Adierazpen Berrien Zaharberritzea

GRADU AMAIERAKO LANA

Hautazkoak

- Generoak eta Gaiak Artean
 - Horma Gaineko Pinturen Zaharberritzea
 - Oihal Gaineko Pinturen Zaharberritzea
 - Ondare Kudeaketa, Erakusketa eta Erregistroa
-

SORKUNTZA ETA DISEINUKO GRADUA



Jakintza adarra: **Arteak eta Giza Zientziak**

Sorkuntza eta Diseinuko Gradua, arteen eta giza zientzien arlokoak, zure prestakuntza sormenaren, kulturaren eta diseinuaren esparru profesionalera bideratzeko aukera emango dizu. Sorkuntza plastikoak eta diseinuak, ezagutza forma moduan ulertuta, beraiekin dakarte nagusiki dinamikoa den diziplina anitzeko jakintza, gizartearen erritmora eta haren eskaeretara egokitzen dena.

Titulazioak prozesu artistikoen praktika, analisi eta kritikaren bidezko prestakuntza eskainiko dizu eta eskuratuko dituzun baliabide teoriko eta praktikoen bidez aukera izango duzu hiru aipamen hauetakoren batean espezializatzeko: Objektuaren Eremua; Zeramika; Diseinu Grafikoa; eta Ilustrazioa.

Sakonetik ezagutuko dituzu berrikuntza eta ikerketa estrategiak eta metodologia sortzaileak, eta goi mailako unibertsitate hezkuntzako profesionalen laguntza izateaz gain, eskura izango dituzu Arte Ederren Fakultateak eskaintzen dituen giza baliabideak, materiala, teknologiak eta azpiegitura espezializatua.

Pertsona sortzailea bazara, diseinua, ilustrazioa edo zeramika interesatzen bazaizkizu, arteak eta estetikak ardura badizute eta talde lana gustoko baduzu, Sorkuntza eta Diseinuko Graduan dago zure lekua.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Diseinu grafikoaren eta ikusizko komunikazioaren, hiri espazioaren eta ingurugiroaren, ilustrazioaren eta zeramika artistikoaren esparruan lan egiteko; proiektuak egiteko prozedurak, teknologiak, gaitasun teknikoak eta metodologia sortzaileak aplikatzeko; eta proiektuon garapenerako konfigurazio baliabideak erabiltzeko, bakarka zein diziplina anitzeko taldeetan.

Irteera profesionalak:

- Diseinu grafikoa: editoriala, publizitatekoa eta ehungintzako
- Diseinu korporatiboa eta web diseinua
- Lan grafikoaren sorrera eta edizioa
- Komikien sorrera eta testuen ilustrazioa, publizitateko ilustrazioa, etab.
- Kultura aholkularitza eta proiektu artistikoen
- Zeramikaren arloko diseinua eta produkzioa
- Irakaskuntza eta ikerketa

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko irakasgaiak)

- Artea eta Teknologia I
- Eskultura I
- Irudi Laborategia
- Irudigintza I
- Materialen Laborategia
- Pintura I
- XX. Mendeko Artearen Historiarako Sarrera

BIGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

- Artea eta Teknologia II: Teknikak eta Prozesuak
- Artearen Historia Orokorra
- Eskultura II
- Irudigintza II
- Laborategia
- Pintura II
- Teknologiak eta Prozesuak

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 42 kreditu + hautazko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Diseinu Grafikoa
- Hiri Espazioa / Ingurugiroa
- Multimedia Sorkuntza
- Proiektuak I
- Proiekturako Baliabideak

2. lauhilekoa

- Diseinuaren Historia Orokorra
- Proiektuak II

Hautazkoak

- Artea eta Funtzioa (1A)
- Zeramikatik (1A)
- Diseinu Grafiko Interaktiboa (2A)
- Testuen Ilustrazioa (2A) (3A)
- Komikia (3A)
- Euskararen Arauak eta Erabilerak
- Ikusizko Kultura eta Hezkuntza

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 18 kreditu + hautazko 24 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Sorkuntza eta Berrikuntza Prozesuak eta Metodologiak

Hautazkoak

- Grafika Teknologikoa (1A) (3A)
- Zeramika eta Diseinua (1A)
- Zeramika eta Sorkuntza (1A)
- Grafika Editoriala (2A)
- Ikusizko Nortasuna (2A)
- Ontziratzea eta Enbalajea (2A)
- PaperArt: Paper Zuntzak Sorkuntza Artistikoan (3A)
- Prototipoa eta Edizioa (3A)
- Komunikazioa Euskaraz: Arteak

2. lauhilekoa

- Ikusizko Kultura Garaikidearen Testuinguruak eta Praktikak
- Profesionalizazioa eta Kudeaketa

GRADU AMAIERAKO LANA

AIPAMENAK

- Objektuaren Eremua: Zeramika (1A)
- Diseinu Grafikoa (2A)
- Ilustrazioa (3A)



UPV/EHUren GRADUONDOKOEN ESKAINZA

Zure gradu-ikasketak amaitu ondoren, zure prestakuntza osatu ahal izango duzu graduondoko batekin. UPV/EHUK graduondoko 150 programa baino gehiago eskaintzen ditu zure etorkizun profesionala garatu nahi duzun alorrean espezializatu zaitez.



Gure unibertsitateko masterrak eta berezko tituluak hemen kontsulta ditzakezu:
www.ehu.eus/eu/web/masterrak-eta-graduondokoak

Eskerrik asko Euskal Herriko Unibertsitatea aukeratzeagatik. Itxaroten dizugu.

Liburuxka hau informazioa emateko baino ez da.
Azken eguneraketa: 2024ko abendua.